

Taldekako Hizkuntz ikaskuntza

Community Language Learning (CLL) edo Norberaren neurriko ikaskuntz metodo egiazkoa*

Mario Rinvolucrí

1. ZER DA «TALDEKAKO HIZKUNTZ IKASKUNTZA» (CLL)?

Galdera horri erantzuteko modurik onena hasiberrien ikasgela tipiko batean gertatzen dena deskribatzea da, dudarik gabe. Irakasleak biran eserita daude. Erdian magnetofoi bat ipintzen da, ahal izanez gero mikrofonoarentzat kordio luzea duena, eta botoi bat, urrutitik gelditu eta martxan jartzeko. Irakaslea biraz kanpoko aldean egongo da ikasleen atzean.

du esan beharrekoa. Irakasleak, orduan, itzulpena belarrira esaten dio, ikasleak magnetofoi martxan jartzen du eta, taldean jasotzaile izango denari zuzenduz, esakunea xede-hizkuntzan esaten eta grabatzen du eta gelditzeko botoia zapaltzen.

Irakasleak itzultzea nahi duen esakunea luzea baldin bada edota xede-hizkuntzan itzulpen luzea eskatzen baldin badu, zatika itzul dezake irakasleak eta ikasleari eskatu puskaka-puskaka esan dezala ozenki, eta grabatu. Luzaro gabe konturatzen dira ikasleak xede-hizkuntzara itzuliko diren esaldi luzeak produzitzeak ez duela ikaskuntza errazten.

1.1. Solasak

Ikasle batek beste bati zerbait esan nahi dionean, irakasleari aditzera ematen dio keinuz eta taldearen ama-hizkuntzan (edo laneko hizkuntzan) esaten

* Frantsesez «L'apprentissage communautaire des langues» (Community Language Learning) ou «La véritable methode d'apprentissage à la carte», *Le Français dans le Monde* (1983.eko otsaila-martxo alea) aldizkarian argitaratua. Beraien baimez itzulia eta berrargitaratua.

Jasotzaileak erantzun nahi baldin badu, irakasleari adierazten dio keinuz eta lehengo prozedura bera errepikatzen da. Baina jasotzaileak agian ez du erantzungo, zer erantzunik ez duela uste duelako edo taldeko besteren batek norbaiti zer edo zer esan nahian aurrea hartu diolako.

Ikasleak bakarrik dira jaun eta jabe hizketako txandaren negoziazioan eta irakasleak gogor egin beharko dio gertatzen dena kontrolatzeko edo guztiaren martxa gidatzeko tentaldiari. Esate baterako, ez ditu bere begiak inoiz ere xede-hizkuntzako jasotzailearengana zuzendu behar, begirada hori erantzutera bultzatzea izango bait litzateke.

Irakaslea taldearen suspertzaile besterik ez da (hitz honek normalean duen adieran) edo, hobe oraindik, «zerbitzari» (waiter), deitzen ez zaion bitartean bazter batean dagoena. Taldearen esku dago, berak ezer agindu edo proposatu gabe.

Curran-ek, metodo honen sorburuan bait dago, irakaslea «aholkari» edo «informatzaile» (knower) bezala definitzen du, hau da: xede-hizkuntzako aditua, alegia. (1)

CLL metodoa erabiltzen duen irakasleak ikasleak diren bezainbat idiolektoren itzulpena hartu behar du bere gain. Garrantzirik handieneko zera da, izan ere, ikasle bakoitzak senti dezala egiten zaion itzulpenak bere esakunearen zertzelada afektibo guztiak (mood and feel) ispilatzen dituela. Behin taldea «berotuz» gero, gero eta azkarragoa izango den martxari jarraitu beharko dio irakasleak; eta honek ikaslearen hizkuntza eta xede-hizkuntza sakonki ezagutzea eskatzen du, baita hasiberriekin ere.

«Aholkari» hitzak, Curran-ek irakaslea definitzean erabiltzen duenak, irakasleak ikasleari hizkuntz berriaren aurrean urduri dagoela igartzen dionean berau lasaitzeko egiten duenari egiten dio erreferentzia. Horrela gertatzen da, esate baterako, CLLko irakasleak itzulpena eskatzen duen ikaslea urduri dagoela igarritz, erantzuna belarri ondora, ahopeka, eskua bizkarrean jarrita ema-

ten dionean. Horrela solidaritasuna azaltzen dio eta piska bat lasaitzen laguntzen.

Solasen aldia 15etik 25 minututarakoa da gutxi gorabehera. Gehiegi irauten baldin badu, luzeegia izango da zintaren transkripzioa eta landu beharko den corpusa astunegia eta, ondorioz, lanerako gogoia kenduko du.

1.2. H₁erako itzulpena

Ikasleek, beren hitzak grabatzera-koan, magnetofonia gelditzeko botoia zuzen erabili baldin badute, xede-hizkuntzan esandako dena jaso da zintan. Ikasle batek atzera botako du eta berriz entzun eraziko esakunez esakune, hitzun bakoitzak berak esandakoa taldearen laneko hizkuntzara berrituztzeko eran. Gerta liteke ikasleren batek berak lehen esandakoa ez berrezagutzea edo hitz haiekin esan nahi zuena gogoan ez edukitzea, baina beti izaten da taldean gogoratzeko duenen bat. Taldeko inor gogoratzeko ez badin bada, «informatzailearengana» joko dute. Fase honetan honek hurrengo etapan erabiltzeko asmoa duen esaldiak aukeratu eta idatziko ditu.

1.3. Analisi gramatikala

Ikasleek erraz atzemateko moduko berdintasuna duten eta galderak sortzen dizkieten esaldiak arbelean idazten ditu «informatzaileak». Hasiberriekin aski izango dira hiru edo lau esaldi. Hauxe izango da seguraski irakasleak jarrera direktiboetara jo eta irakasaio majistrala egiteko tentaldia izango duen unea.

Gero ikasleei adieraziko die arbelean idatzitako esaldiei buruz egindako galdera guztiei erantzungo diela. Badu bere garrantzia irakaslea egingo zaizkion gal-

(1) Ez dugu erabat aseko gaituen «knower» itza-
ren itzulpenik aurkitu. Hemen aurkezten dugun me-
todoari dagokionean, «informatzaile» iruditzen zaigu
terminorik aproposena.

deren esparrutik ez ateratzeak, izan bait dezake, galderaren batek oin emanda, azalpen luzetan hasteko tentazioa. Taldearen laneko hizkuntza arruntan egingo dira galderak eta emango erantzunak.

Jeneralean hiru etapa hauek osatzen dute ikasaioa.

1.4. Transkribatutakoa ikasi

Hurrengo ikasaioa baino lehen, irakasle-informatzaileak transkribatu egingo du zinta. Transkripzioak ahalik eta hurbilen egon behar du ikasleak esan due netik. Lehenengo edo bigarren ikasaioaren ondoren ikasleren batek, esaldiaren orde, ulertu ezin den lardaska egiten baldin badu, transkribatzaileak bazter dezake edo zuzen transkribatu. Jeneralean, behin bigarren saioaz geroz ikasle batzuk esaldiak edo esaldien hasierak egiten hasiko dira, irakasleari itzulpenik eskatu gabe. Esakuneak, beraz, errore sintaktikoz eta josirik egongo dira, hitzen ordena aldatuta egongo da... Errore horiek azaldu egingo dira transkripzioan.

Ikasaioaren hasieran irakasleak banatuko ditu transkripzioak eta beren produkzioa irakurtzen utziko die ikasleei. Irakurketa honen joanean galdera asko egingo dizkiote elkarri eta «informatzaileari» esakune gramatikalez eta esanaiaz.

Irakurketa honek berez ekarriko du elkarrizketa berriak grabatzea; baina, oraingoan, ikasleek ulertu dituzten hizkuntz zatiak erabiliko dituzte, hauen baliagarritasuna ziurtatu eta besteengan duten eragina neurtu nahian.

Honelakoxea da, arras zinglea, CLL ikasaio baten garapena. Metodo hau erabiltzearen plazer, deskribatu duzun marko honen barruan hizkuntza berari derizkion bezala, libertate osoan, hustiratu ahal izatetik datorkio ikasleari. Talde batzuek solasaren aldi hau rol-joko bihurtzen dute. Hala, 1979an, Norwich-en frantsesa ikasten ari ziren heldu britaniar batzuek, esate baterako, turis-

mo-kutsuko elkarrizketak egitea erabaki zuten. Alan Pulverness, Norwich-eko Bell Eskolakoak dio (elkarrizketa pribatu batean) azkeneko hiru urteotan zenbait talde frantses eta alemanek beren taldeko elkarrizketa-lanean bilerako lehendakari bat edo animatzaile bat, espreski ala ez, izendatzeko erabakia hartu zutela. Era berean, fase hauetan erabil zitezkeen gaiak ere mugatu egiten zituzten. Zenbaitzuek denen artean istorioaren bat kontatzea erabaki izan dute. Zenbaitetan nik neuk ere lan egin izan bait dut horrelakoekin, eskatu izan didate aurreko saioko transkripzioa irakurtzeko, nire ondoren beraiek ozenki irakurri ahal izateko. Honela, metodo honek gauzak beren eskuetan hartzeko aukera ematen die ikasleei eta, azken finean, beren eskuliburu propioa egitekoa.

2. NON ETA ZERGATIK ERABILI CLL? ZENBAIT ESPERIENTZIAREN OIHARTZUNA

Hau da irakasle askok CLLn estimatzen dutena: taldearen beharrei erraz egokitzen zaien marko zingile eta sinplea eskaintzen duela. David Pollard School of Oriental and African studies-en txinera irakasten duenak erabili du metodo hau zenbait orduz, honela ikasleei ahozko txinerari ekiteko aukera emanez, batzuentzat hau oso zaila bait zen. Karakterrak apur bat ezagutzen zituzten eta hitz egiten zuten baino askoz hobeto idatzi eta irakurtzeko gauza ziren. Metodoa oso emankor azaldu zen, ikasleak txineraz hitz egitera bultzatzeko modukoa.

Jane Lockwood, Australiako Hegoaldeko Gales Berriko Unibertsitatean irakasle denak, alde haietan lanpostu kualifikatua eskuratu ahal izateko beren ingeleseko hobetu behar zuten etorkinei zortzi asteo ikastaro trinkoak emateko aukera zuen. Ikasle gehienak Asiako Hego-Ekialdetik eta Europako Hegoaldetik

etorriak ziren, eta denboraldi bat bazeramaten Australian. Ingelesa ondo eza gutzen zuten, baina sakon sustraitutako akatsak ere bazituzten. Ikasleak beren banakako eta taldekako erroreerz jabe zitezen, CLL metodora jo zuen, eta zortzi aste haien buruan eurek ebaluatuko zuten beren aurrerapena. Hona egin zuena:

Lehenengo goizean hamarnakako taldetan banatu zituen ikasleak. Talde bakoitzari magnetofoi bat eman zion eta gela batean jarri zuen. Ordu-erdi batean 300 bat elkarriketa-unitate jaso behar zituzten eta, gero, berriz entzun eta egindako erroreak aurkitu. Horrela, hasiera-hasieratik zuten ikasleek beren gain beren erroreak zuzentzea. Oso eraginkor gertatu zen elkarri irakaste hau, ikasle greziarrak ikasle vietnamiarraren erroreak berehala atzematen zituela eta alderantziz.

Biharramonean zinten transkripzioa banatu zien eta erroreak aurkitzeko eskatu. Transkripzioa, entzun zutenetik ahalik eta hurbilena zen. Hamasei aldiz egin zen prozesu hau ikastaroan zehar eta CLL metodoa zen ikasleei beren aurrerapenak neurtzeko parada ematen ziena. Jazoera honek adierazten digu nola erabil daitekeen metodo hau lehen hizkuntza desberdina duten ikasleekin, beren errorean eta hauen zuzenketaren ardura beren gain har dezaten.

A Way and Ways, Stevick-ek berriki argitaratutako lanean, Ohioko Unibertsitateko Dieter Stroinigg-ek azaltzen du CLL erabili zuela lehen zikloko ikasle hasiberriekin, Luxenburgoan sei asteko ikastaro trinko batean.

«Azkar aski nabarmendu ziren emaitzak. Ikasle batzuk beste batzuk baino askoz azkarrago aurreratu ziren. Taldeko harremanek azkarrenei besteek trabarik ez egiteko era ematen zuten. Taldekideek elkarri laguntzen zioten, adorea edo argibideak edo informazioa behar zutenean, eta horrek irakasleari ikaskuntz prozesua behatzeko erraztasun osoa eman zion, gidatzen edo indartzeko ekintzen bila hasi beharrik gabe.»

CLLn sei astez aritu ondoren, ikasleek, Stroinigg-en ustez, alemana hasi-

berriek unibertsitateko lehen ikastaroaren ondoren bezain ondo meneratzen zuten.

Neronek lan egiten dudak lekuan ere (Pilgrims Language Courses, Canterbury, Britainia Handia) antolatzen dira egunean sei orduko ikastaro trinkoak. 1980ko udan erdi mailako lau taldeko ikasle guztiak batean bildu zituzten ordu t'erdez egunero, CLL metodoarekin lan egiteko. Horien «informatzailea» Marjorie Baudins, esperientzia asmatu zuenak, uste du ikasleak oso pozik zeudela ohizko taldeetako —hizkuntza desberdinetako ikasleek osatuak— beharpenei ihes egiten zietelako. Lasaitasun ederra nabaritzen zuten, behar izanez gero beren ama-hizkuntzara jotzea zeukatelako eta bizgarri gertatu zitzaizen esan nahi eta askotan xede-hizkuntzan esateko abildaderik ez zutena esateko modu «magikoa» izatea. Bazkalondan erabiltzen zuten Marjoriek metodo hau, lan trinkoak eta honetarako xede-hizkuntza bakarrik onartua izateak ekartzen zituen nekea eta tentsioak arintzeko. Hurrengo astean aukera bera eskaini zien ikasle italiaradunei, eta gero espainiaradunei.

Nik neuk ere erabili nuen 1978an CLL metodoa Cambridgen eskulangile txiletar errefuxiatu batzuei sei asteko ikastaro bat ematen ari nintzela, egunean ordu betez erabili ere. Talde hartako askok desadoregarriak eta nekez jarraitzeko modukoak aurkitzen zituen Cambridgeko hizkuntz eskolotako ikastaroak. Zentibaitek gaizki jaso zuen erabilitako eskuliburuen edukia eta sumindu samarrrak zeuden ikaskide batzuen erraztasuna ikusita.

Talde ezin hobea ematen zuten CLL metodora jotzeko, ideologiaz, nazioz eta hizkuntzaz talde berekoak bait ziren: Cambridgeko errefuxiatu txiletarrena, alegia. Nik bi urte emanak nituen Txilen demokrazi garaian eta ikasleek bazekiten hori.

Hona han sortutako elkarriketen muestra bat:

Doris : Zer egin zenuen atzo?

Filomena : Berriketan aritu ginen.

Manuel : Nere falta nabaritu al zenuen?

Filomena : Zu ikusteaz okituta da-goela esan zuen Emak (Manuelen andreak). (Algarak).

Consuelo : Bere gizona ez ikusteak ez dio batere kalterik egin. Ezkontzako bizimodua gogorra da, ezta? Zer erizten diozu horri, Filomena?

Filomena : Beno, bizitzako martxa nolakoa den...

Manuel : Gurutzea astunagoa izango da, bakarrik eramatera. Hobe da biren artean eramatea.

Ema : Zer iruditzen zaizu zuri, Consuelo?

Consuelo : Badira hogeita hemezortzi urte niretzat astuna dela.

Ema : Zaila izan al zen zeure seme-alabak haztea?

Consuelo : Bai.

Manuel : Aizu, Ema, zenbat urte da ezkondu zinela?

Ema : Bederatzi.

Manuel : Ez. Hamar dira. Hamar urte.

Ema : Ehun joan direla iruditzen zait.

Consuelo : Zer erizten diozu ezkontzari?

Doris : Ez dakit ba. Oraindik ikasten ari naiz.

Consuelo : (Manueli) Ez didazu, ba, esango biktima zu zarenik.

Ez dezaket esan talde honetako ikasleek hizkuntzan aurrerapen ikusgarriak egin zituztenik. Horietako gehienentzat oztopo handia zen ingelesa ingurune hartan bizi izateko ikasi beharra. Ingelesa Pinochet eta honen eusle amerikarren hizkuntza zen haientzat. Gainera, batzuk ez ziren batere iaioak hizkuntzak ikasten. Alabaina, CLLren esperientzia dela medio, iruditzen zitzairen ingelesak balio zezakeela beren gauza pertsonal eta garrantzizkoak elkarrizkari adierazteko, irakurri berri dugun transkripzioak azaltzen duen bezala.

3. CLL-REN INPLIKAZIOAK, BAKOITZAREN NEURRIKO IKASKUNTZ METODO EGIAZKOA DEN HEINEAN

Erabat aldatzen du irakaslearen zeregina. Informatzaile «leungailu» (shock absorber) enpatiko bilakatzen da, aldi berean ikasle taldearen erdi-erdian eta taldez kanpo dabilen norbait. Agian CLLk hizkuntz irakasle «onarena» ez bezalako profila eskatuko du.

Antropologia, terapia edo entzutea eta behatzea eskatzen duen beste ezein disziplinatan hezia izatea litzateke, zailtzarik gabe, «informatzaile» izateko prestakuntzarik onena. Ikasleen atzean izkututzen edo horien ondoan egoten jakin behar da taldearen aurrean «buru» izaten baino gehiago.

CLLk deuseztatu egiten ditu esku-liburuak, eta programak eta autoreak eta arau-emaileak alde batera uzteko bidea ematen du. Ikastaroz ikastaro ikasleen artxibadoreetan pilatzen diren transkripzioak dira ikasleen esku-liburu «neurriera egindakoak». Honela dio Dieter Stroinigg-ek gai honi buruz: «Ikaslea bera da, egoki edo beharrezko derizkion ikasi nahian, bere beharrak mugatzen dituena eta, ondorioz, landuko diren edukiak nola eta zein martxatan aurkeztu markatzen duena. Luxenburgoko taldean, esate baterako, gertatu zen aditz alemanaren aldiei buruzko zerbait lehenengo ikaslearen bertan egin zela. Hone-lako galderak jeneralean ez dira egiten lehenengo, bigarren edo ezta hirugarren astearen bukaerara arte ere. Lehenengo astearen bukaeran ikutu zen subjuntiboa —normalean lehenengo urtearen azkenean irakasten da— beharrezko gertatu bait zen. Ikasle batzuek, izan ere, «Was möchten Sie zum Frühstück» (Zer nahi zenuke gosaltzeko?) esaldi global zingle bat bezala onartu ez zuten unetik bertatik garaia zen subjuntiboaren erabilerak dakartzan arazoei aurre egiteko.»

Burugabekeria zatekeen Stroinigg progresio nozio/funtzionala edo estruk-

turala aurrez ezartzen saiatzea. Era berean, alferrikakoa zen programatzaile edo programen administratzaile batek, berez edo taldearen lekuan, oraindik lehenago progresio hori lantzea.

Curran-en ikuspegitik galde daiteke zergatik ematen zaion hainbeste denbora ingeles espezialduaren irakaskuntza planifikatzeari. Hizkuntza arrotza ikasten ari diren injeniariak CLL batean bilduko balira, askatasun osoa izango lukete, ikastaro batean edo bestean, beren espezialitatez hitz egiteko. Teknikariak askotan nahiago izaten dute beren buruaz hitz egin eta ez biltzera ekarri dituzten kezka profesionalez.

CLL da autoikaskuntzarako nik eza gutzen dudan markorik garbiena, ez baita ezertarako aurrez prestatutako materialetan oinarritzen. Ikasitakoa taldeki-de bakoitzak egindako aukeraren emaitza da. «Informatzailea» pertsona-baliabide da eta CLLk marko beroa, eta elkarri laguntzeko bideak ematen dituena. Hau ez dute egiten autoikaskuntzarako metodoetan, ikaslea bakarrik uzten bait dute jeneralean ikasiko duen hizkuntzaren aurrean —egoera bitxia, bestalde, hizkuntza besteekin batera egoteko modu bat dela pentsatuz gero.

4. CLL-K DAKARTZAN PROBLEMAK

CLL saioetan zer gertatzen den deskribatzen du artikulu honek eta hainbat ikaskuntz egoeratan egindako esperientzien berri eman digu. Niri metodo hau estima erazten didaten arrazoiak ere azaldu ditut. Baina metodo guztiek dituzte beren alde txarrak eta hori ikutuz bukatu nahiko nuke.

Izartxo bat aurretik duten paragrafoek nik neuk neure irakaskuntza aurkitutako arazoek berri ematen dute. Kalkotx arteko paragrafoak Rod Bolithoren (2) artikulu batetik ateratakoak dira. Hauxe da Erresuma Batuan CLL metodoaren erabileran eskarmenturik handiena dutenetako bat.

—«Lehenengo ikastaroak nekosoak izan daitezke, irakasleak eta ikasleak eginkizun berrietara jartzen saiatu behar dutelako. Ikasleak, agian, oso bortizki eskatuko diote beren irakasle-aholkariari elkarriketarako gaiak emateko.»

— *CLLk ikasleei hainbeste handiko askatasuna ematen dienez gero, ez da arriskurik gabekoa lan-modu hau, taldean lagun menderatzaile eta orekarik gabekoren bat baldin bada. Gertatu izan zait talde batekin horrelako egoera batean aurkitu eta metodo hori erabiltzeari uko egin behar izatea.

— «Elkarriketa batzuetan denbora luzeegian egoten dira berriketan, axalean eta ezertan sakondu gabe.»

— *Taldea batzuk ez dira gustora egoten beren burua gidatzeko erantzunkizunarekin. Talde batek, esate baterako, entzuna zuen nik klase batean Moskowitzen (3) erako ariketa ugari eta erakargarriak erabiltzen nituela; beraz, nire manipulazio-joko jakintsuen mesedetan CLL metodoa uzteko gogoia jakin erazi zidaten.

Hogeita lau orduz nahiezean ibili ondoren, amore eman behar izan nuen; ez pozik, hala ere, erremediorik ez zegoe-lako baizik. Ez da erraza bizkarren gainean O.H.O. eta Ikaskuntza Ertainetan 15.000 ordu dituztenei beren erantzunkizunari heltzeko eskatzea.

—«Aurkitu izan ditut, noizean behin, leinu edo pertsonen arteko ezin eramanez jositako taldeak; eta baita ere (behin) tartean sartu eta ikastaro bat eten beharrean ere suertatu naiz, bi ikasleek elkar gorroto zutenek, CLLk ematen zieten askatasuna beren arteko auzi-mauziak konpontzeko erabili zutelako.»

(2) Berezik *Drawbacks and Caveats* titulua duen zatia.

(3) MOSKOWITZ, G. (1978): *Caring and sharing in the foreign language classroom*, Newbury House.

BIBLIOGRAFIA

- BOLITHO, R. (1982): «CLL: A way forward» In: *ELT Documents 113*, British Council.
- CURRAN, C. (1972): *Counseling-Learning: A Whole Person Model for Education*, Apple River Press.
- SCHMIDBAUER, W. (1977): *Die Hilflösen Helfer*, Rowohlt.
- STEVICK, E. (1980): *A Way and Ways*, Newbury House.

Itzultzailea: Boni Urkizu

EL METODO COMUNITARIO DE IDIOMAS

Mario Rinvolucrí analiza en su artículo el método de aprendizaje de idiomas ideado por Curran, método que constituye una plasmación de los principios de la psicología humanística en este campo concreto del aprendizaje. El método comunitario trata de crear las condiciones idóneas para que el alumno se convierta en verdadero agente de su aprendizaje, razón por la que puede ser calificado como verdadero método de aprendizaje «a la carta».

Dicha descripción la realiza el autor en términos operativos. Rinvolucrí define el método mediante la

descripción detallada de cuanto acontece en una clase de principiantes que ha adoptado los procedimientos del mismo. Posteriormente aborda las cuestiones de *cuándo* y *por qué* utilizarlo, proporcionando diversos ejemplos de experiencias realizadas en este campo. Y finalmente analiza las implicaciones del mismo así como los problemas o las circunstancias problemáticas que impiden o desaconsejan su utilización.

COMMUNITY LANGUAGE LEARNING

In this article Mario Rinvolucrí analyses the method of language learning devised by Curran, a method based on a particular blend of the principles of humanistic psychology as applied to language learning. What this method sets out to create are the conditions which allow the learner to become the real agent of learning, and for this reason, it could be considered a genuine method of learning «a la carte».

Rinvolucrí's analysis proceeds in operative terms. He defines the method through a detailed

description of what actually happened with a class of beginners which had decided to adopt the approach. He then goes on to consider the questions of *when* and *why* to use CLL, giving a variety of examples of experiments carried out in its application. In conclusion he looks at various practical implications of CLL, including problems or problematic circumstances which would impede, or make inadvisable, its use in the classroom.

LA METHODE COMMUNAUTAIRE DE LANGUES

Mario Rinvolucrí analyse dans son article la méthode d'apprentissage de langues conçue par Curran, méthode qui constitue une application des principes de la psychologie humaniste dans ce terrain concret de l'apprentissage. La méthode communautaire cherche à créer les conditions idéales pour que l'élève devienne un véritable agent de son apprentissage, raison pour laquelle elle peut être qualifiée de vraie méthode d'apprentissage «à la carte».

L'auteur fait la description en termes opérationnels. Rinvolucrí définit la méthode en se basant sur la

description détaillée de tout ce qui a lieu durant un cours de débutants qui suit cette méthode. Ensuite, il analyse les questions quand et pourquoi l'utiliser, tout en présentant plusieurs exemples d'expériences réalisées dans ce terrain. Pour finir, il étudie les implications qu'entraîne la méthode ainsi que les inconvénients ou les circonstances problématiques qui empêchent ou déconseillent son utilisation.